



(H)ILBELTZA 2019 AURKEZPENA

Arratsaldeon denei eta mila esker 2019ko (H)ilbeltzaren aurkezpen honetara etorri zareten guztiei.

2019ko Euskal Nobela Beltzaren Astearen aurkezpen hau anekdota ttipi batekin hasi nahi dugu. Izan ere, lehengoan bi lagun elkartu ziren karrikan, eta batak zera galdetu zion bertzeari:

-(H)ilbeltzako bideoa ailegatu zait, ikusi duzu? Bikaina da. Aurten ere joan behar duzu (H)ilbeltza ikustera?

Bigarren lagunak, filosofatzeko aurpegiera paratuta, ondokoa erantzun zion:

-Bai, joanen naiz, baina ez (H)ilbeltza ikustera, (H)ilbeltza egitera baizik.

Guri, (H)ilbeltza kolektiboko kideoi, gustatu egin zitzaigun lagun honen hausnarketa, iruditzen zaigulako biziki ongi biltzen duela Euskal Nobela Beltzaren Astearen errealitatea.

Gaurgero lau (H)ilbeltza joan zaizkigu, gaur bortzgarrena aurkeztera heldu gara, eta bildu eta bizi izan dugun esperientziak erakutsi digu (H)ilbeltzara heldu dena ez dela publikoari maiz paratzen zaion rol pasiboa jokatzera mugatzen. (H)ilbeltzara heldu dena, nahita edo nahi gabe, (H)ilbeltzaren parte bilakatzen da, (H)ilbeltza sortzen laguntzen du.

Gure ustez, gogo onez pentsatua eta gauzatua den Euskal Nobela Beltzaren Astea, gure hizkuntzak eskaintzen duen hurbiltasunarekin, eroso sentiarazten du etortzen dena. Intimitate publikoa sortuz, literaturaz, zinemaz edota antzerkiaz goatzera eramanez.

(H)ilbeltza, Euskal Nobela Beltzaren Astea, Baztango “Idazleekin solasean” irakurle taldeko kide zenbaitzuen eskutik sortu zen, baina ezin da erran (H)ilbeltza soilik kide hauek direnik. 2019ko ekimenean, errate baterako, hogeita hamar lagun baino gehiagok hartuko dute parte modu zuzenean, solasaldiak ematen dela, antzerkia jokatzeko dela, edota musika tresnaren bat jotzeko dela, ekintzen ondoren gurekin poteora edota afaltzera etorriko direnak kontutan hartu gabe. Aitzineko urteei buruz antzekoa erran daiteke. Bistan denez, (H)ilbeltza kolektiboak proposamenak egiten ditu, eta jendeak eskuzabaltasunez parte hartzen du.

Azaltzen ari garenaren adibiderik argiena, akaso, 2016an martxan paratu genuen “Izan (H)ilbeltza” kanpaina izan daiteke, non Euskal Nobela Beltzaren Astea diruz laguntzen zuen jendearen izenekin 2017ko kartela osatu zen.

(H)ilbeltzaren garapena agerikoa da sortu zenetik, baina hasierako irizpideak mantentzen ditugula pentsatzen dugu. Elkarlanean oinarritzen da gure ekinbidea, euskaraz pentsatua eta eginga, eta, inportanteena, goatzeko gauzatua.

Izan ere, bertze edizioetako balorazioetan argi izan dugu beti. (H)ilbeltzarat heldu denak gozatu behar du, baita guk ere.

Behin baino gehiagotan galdetu digute noiz arte egingen dugun (H)ilbeltza, zein den bere etorkizuna. Bortz, bederlatzi, hamaika... batek daki. Argi dagoen bakarra da (H)ilbeltzarekin disfrutatzen dugun bitartean aitzin segituko duela (H)ilbeltza eta zama bilakatzen den momentuan hasiko dela desagertzen. Momentuz aitzin eta gogoz.

Literaturaz disfrutatzeke sortu zen (H)ilbeltza eta, ohartu gabe, sortzen disfrutatu dugu. Izan ere, sormena izan daiteke akaso Euskal Nobela Beltzaren Astearen ezaugarrietako bat.

Ohartu gabe, diogun gisan, ipuin beltzak sortu ditugu, susmagarrien jokoak, ibilbide antzeztuak, irakurraldi musikatuak, euskarazko nobela beltza bulkatzeke beka bat, genero beltza lantzen duen web orrialdea... Eta ematen zuen irakurle taldeetan ez zutela irakurri bertzerik egiten!

Bada, gaur aurkezten dugun edizioan, hain zuzen eta solasaldi eta mahai-inguruez gain, propio sortutako "Susmagarrien gaua" jokoa izanen da Erratzun, "Bele kamutsak inauteetako eskean" izeneko itzuli beltza antzeztua Arraiozen eta "Chandlerren alde... edo kontra" irakurketa girotua Elizondon. Josune Monton, Ainhoa Alberdi, Ainara Unanua, Andrea Narbarte, Xabi Durruti, eta Arraiozko gazteekin, Jon Alonso eta Mairu antzerki taldearekin. Elkarlanean, euskaraz sortzen eta euskaraz disfrutatzen. Hortik dator (H)ilbeltzak duen arrakasta, eta horregatik gaude hemen, Euskal Nobela Beltzaren Aste berri bat aurkeztera etorri garelako, 2019ko urtarrilaren 14tik 20ra Baztanen izanen dena.

Astearen egitarauarekin hasi aitzin, promoziorako BIRA produkzioak egin duen spota erakutsi nahi dizuegu. Hasmentako bi lagun horiek aipatzen zutena hain zuzen ere. Beñat Iturriotz dugu hemen BIRA produkzioak taldearen izenean eta berak aurkeztuko digu spota eta kontatuko dizkigu nondik norakoak.

BEÑAT ITURRIOTZ: Aurten ere BIRA produkzioko Eñaut, Beñat eta Oskarbik sortu dute spota. Beraiekin lanean aritu diren aktoreak Marina Aparicio eta Ruben Markina izan dira. Krimena Baztanen idazten da.

Aurten ere kontent gara promoziorako bideo honekin, ederki egokitu baita gure izanari: beltza da baina badu umoretik ere bai. Eta hasiko gara astearekin, egunez egun izanen dugunaren berri ematen:

-Euskal Nobela Beltzaren Astearen lehen egunean, **ILBELTZAREN 14ean**, astelehena, "Idazleekin solasean" ekimena izanen dugu. Bertan, liburu bat aukeratu eta idazlea gonbidatzen dugu merendu goxo baten bueltan liburuaz solastera. Aurtengoan, idazlea ez baizik eta itzultzailea etorriko zaigu, itzultzea sorkuntza baita ere. Xabier Olarra etorriko da Dashiell Hammetten **UZTA GORRIA** liburuari buruz solastera.

Nobela beltzen aitzindaria da Hammett, klasiko bat, genero beltzeko aitzindaria, eta **IGELA** argialetxeak egin duen berrargitarapenak aukera ederra eskaini digu.

Arizkunen, medikuaren etxeko liburutegi beltzean, arratsaldeko 7:30etan.

-**ILBELTZAREN 16an, asteazkenean**, berriz ere euskal nobela beltzen klasiko bat izanen dugu gure artean. Loidi, Izeta, Garate eta Peillen pasatu dira (H)ilbeltzatik. Aurten Xabier Gereñori buruz ikasiko dugu. Euskaltzalea zen, eta irakurleak sortzeko idatzi zuen. Bere euskara ikasteko metodoetan txertatu zituen nobelak eta horietan Jurgi Kapitaina sortu zuen.

Koldo Izagirrerri egin genion gonbitea eta bere baietzari esker Anizen ikusiko dugu baietza horren emaitza. Mendiarte elkartearen arratsaldeko 19:00etan.

-ILBELTZAREN 18an, ortziralean, zinema eta literatura lotuko ditugu aurten ere, zinemarekiko ohiko eguna klasikoa bilakatzen ari delarik kasik. Gontzal Agote zine kritikariak “Hemingway ere beltza zen” ekitaldia gidatuko du.

Ezin da erran Hemingway genero beltza bereziki landu zuenik, ipuin eta eleberri ilunak izan arren. Paradoxikoki baina, Hemingwayren zinemarako egokitzapenik onenak zinema beltzaren generokoak dira.

Gontzal Agote eta Hemingwayrekin hitzordua, ortziralean izanen da, ilbeltzaren 18an, erran bezala, arratsaldeko 19:00etan Elizondoko Arizkunenea kultur etxean.

-ILBELTZAREN 19an, larunbata, egun betea dugu. Goizetik hasi eta gaua artio.

Goizean, urtero bezala, mahai-ingurua izanen dugu. “Hiria eta landa eremuaren trataera nobela beltzetan”

Gure kezka, eztabaida eta galderetatik abiatu da mahai inguru hau: Zertan aldatzen da istorio beltz bat, hirian ala landa eremuan kokatzen badugu? Zer rol du espazioak eta paisaiak nobela beltzean? Bereizten ote ditugu gaur egun bi eremuak edo hibridoak bilakatu ditugu? Nobela beltzaren ereduak hirian sortu eta garatu zela gauza jakina da, baina bada hiritik kanpokoak ere.

Itxaro Borda eta Edorta Jimenez arituko dira beren landa eremutik eta beren hirietatik. Ana Galarraga moderatzaileak gidatuko ditu.

Goizeko 11:00etan Elizondoko Arizkunenea kultur etxean.

Ondoren, Erratzura joanen gara bazkaltzera.

Otorduak estuki lotuak daude “Idazleekin solasean” ekimenak antolatzen dituen hitzorduekin, Euskal Herrian maiz gertatu ohi den gisan. Euskal Nobela Beltzaren Astearen merendu, pikoteo eta askari ezberdinak daude. Nolanahi ere, Erratzuko Etxelebert elkartearen izanen da larunbateko bazkaria. Txartelak ilbeltzabaztanen@gmail.com helbide elektronikoan erreserbatzen ahal dira. Kalabaza purea, entsalada eta barazki lasaña da menua, mamia postrerako. Jaki guztiak bertakoak eta pozoinik gabeak, Ruthek mimoz eta maitasunez ekoitziak eta sukaldatuak.

Bazkalondoan, arratsaldeko 17:00ak aldera, liburu aurkezpenak.

Klasikoen gain, euskal nobela beltz berrien erakusleho gisa, berriki argitaratutako hiru nobelen aurkezpena izanen ditugu.

-Miel Anjel Elustondok “Kezko bola batek itoak birrikak” aurkeztuko du. Txalapartak argitaratua, lehen (H)ilbeltza bekaren emaitza dugu nobela hau, ilusioz eta antsietatez kasik espero genuena.

-Edorta Jimenezek “Ostadarrak lurra ukitzen duen lekua” aurkeztuko du.

-Xabier Etxeberriak, azkenik, “Berrito itzuliko balitz” aurkeztuko du.

Ilunabarrean, SUSMAGARRIEN GAUA. Eguna tertulia literario eta liburu artean igaro ondoren, elkar hobeki ezagutu eta jolasean aritzeko parada izanen da. Aurreko urteetan bezala, sorpresaz eta inkognitaz betetako jokoa izanen dugu, irri eta orro goxoan aritzeko Erratzuko ostatueta barna.

-ILBELTZAREN 20a, azkeneko eguna.

igande goizean, ITZULI BELTZA deitu dugun ekitaldia ikusteko aukera izanen dugu.

Erran beharra dugu (H)ilbeltzaren bertze irizpide bat ekitaldiak ez zentralizatzea dela, eta Baztanek dituen 15 herrietatik ahal den gehienetara ailegatzea urtetik urtera. Ez gara guzietara ailegatzeko baina itzuli beltza da preziskiki herri desberdinetan ematen den bakarra. Aurten Arraiozen izanen da, zenbait herritarren parte hartzearekin.

Arraiozen inauteriak izanen dira eta trikitixaren doinuarekin batera, bele beltzak kantuz eta dantzan ibiliko dira bideetan barna. Istorio bat ezagutzeko aukera eskainiko digu kontalariak, antzezle, musikari eta herritarren laguntzarekin.

Ipuin, istorio eta antzerkia espreski sortzen dira egun horretarako eta leku horretarako. Aukera bakarra da ilbeltzaren 20koa.

Arraiozen, goizeko 11etan.

Akitzeko, arratsaldeko 7etan Elizondoko Arizkunenea kultur etxean, Jon Alonsok idatzitako "Chadlerren alde... edo kontra" irakurketa girotua izanen da Mairu antzerki teldearen eta (H)ilbeltzako kideon eskutik.

Chandler idazlearen irudia aukeratu dugu irudi pragmatikoa delako nobela beltzaren munduan.

Irakurketa diogu, testutik abiatzen delako, eta testua delako oinarria. Eta girotua, antzerkiak berezkoak dituen elementuak baliatuko ditugulako ikuslea laguntzeko eta entretenitzeko.

(H)ILBELTZA BEKA

Hori guzia da astea, baina (H)ilbeltza ez da aste hori bakarrik.

2017an (H)ilbeltza Beka sortu genuen Baztango Udalarekin eta Txalaparta argitaletxearekin batean. Urte batez sormena eta bertze batez itzulpena argitaratzea lagunduko duen beka da.

Lehendabiziko bekaren irabazlea Miel Angel Elustondo izan zen eta erran bezala, aurten aurkeztuko dugu larunbatean.

2018ko deialdiaren irabazlea Josu Baranbones izan zen, eta Patricia Highsmith idazle estatubatuarren *The Blunderer* lana itzultzen ari da. Heldu den urtean aurkeztuko dugu beraz.

Aurtengo deialdia (H)ilbeltza pasatu eta gero egingen dugu. Baina probestuko dugu aurkezpen hau idazleak beren sormen lana aurkezterat animatzeko.

WEB ORRIA/BLOGA

Erran bezala, (H)ilbeltza, aste bateko egitaraua baino gehiago da, edo horretan ahalegintzen gara bederen. Urteak pasa ahala, eta Euskal Nobela Beltzaren Astea sendoturik, ekimen ezberdinak paratu ditugu martxan. Horietako bat ilbeltza.eus webgunea da, genero beltza bultzatzeko helburu orokorrarekin. Sei atal daude web orrialdean: liburu aipamenak, elkarrizketak, generoaren inguruan hausnartzeko atala, zine beltzaren ingurukoa, “Beltzometroa” izeneko galdetegi laburra eta “puska beltzak” izeneko.

Web orrialdean argitaratu genuen adibidez GENEROAZ atalean , Xabier Olarraren gomendioa: aurten gurekin izanen dugun Dashiell Hammetten UZTA GORRIari buruzko iruzkina. Bistan denez, bisitatzera gonbidatzen zaituztegu. Astean barna sortuko diren hausnarketak, elkarrizketak eta abar sartuko ditugu ondoko asteetan.

Bertetik, ilbeltza.blogspot.com bloga dago, non Euskal Nobela Beltzaren Astearen inguruko informazio praktikoak kontsulta daitezkeen.

Tira, bertzerik gabe, Euskal Nobela Beltzaren Astea parte hartzeko gonbidapena luzatuta, agurtzea eta eskertzea baino ez zaigu gelditzen. Mila esker denei eta (H)ilbeltzan ikusiko dugu elkar.

